

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### Lanpostu zerrenda aldatzea, hizkuntza eskakizunei dagokienez

Urizaharreko udalbatzak, 2020ko maiatzaren 19ko osoko bilkuran, erabaki zuen idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren hizkuntza eskakizuna aldatzea, hari derrigortasun data esleitzea eta, ondorioz, lanpostu zerrenda bera ere aldatzea.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, iragarki honen bidez, oso-osorik argitaratzen da aipatutako aldaketa.

#### A. Funtzionarioak

Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: Idazkari-kontuhartzailea.

Klasea: Hirugarrena.

Administrazio egoera: jardunean.

Taldea: A1.

Destino osagarriaren maila: 26.

Dedikazioa: osoa.

Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigortasun data: 2020ko maiatzaren 20a.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Urizaharra, 2020ko maiatzaren 25a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*